



❖ MENDIRIZ MENDI Eskaladako hobekuntza eta teknifikazio ikastaroa

Mendiriz Mendi elkarteak eskalada ikastaroa antolatu du, maiatzaren 28 eta 29ko astebururako. Hobekuntza eta teknifikazio ikastaroa izango da. Mendiriz Mendik bilera egingo du interesatu guztiekin, maiatzaren 27an, ostirala, 20:00etan, elkarteko bulegoan. Hor zehaztuko dira lekua, prezioa eta abar. ||

Aitor Santxo: 'Spining' irakaslea Hernaniko kiroldegian:

"Spining-a edozeinek egiteko moduko kirola da, intentsitatea igo edo jaitsita"

Estatu Batuetan sortutako kirol honek arrakasta haundia lortu du eta Hernaniko kiroldegira ere ekarri dute. Bizikleta estatiko gainean egiten da, musikaren erritmora.

SPINING-a puri purian dagoen kirola da, eta Hernaniko kiroldegian ere ari dira ematen, tenis pista gainaldean. Oraingoan, proba moduan jarri dute, kiroldegitik Kronikari esan diotenez, baina, izan duen arrakasta ikusita, datorren urtean klaseak atarako dituzte seguruenara. Aitor Santxo da irakaslea eta bere hitzetan orain dago modan kirol hau eta "jendea engantxatuta dabil". Berez ez da gaur goizean sortutakoa: "80garren hamarkadan sortu zuen Estatu Batuetan, Jony G. txirrindulariak, EEBBak zeharkatzen zituen lasterketa bat prestatzen ari zela ideia okurrituta" esan digu Santxok.



Iladan jarrita pedalei eragiten 'spining' ikasleak Hernaniko kiroldegian.


Musikaren erritmoan

Aerobic-ean bezalaxe, spining-ean ere musikak jartzen du erritmoa: "edozein musika erabiltzen dut nik, hasi musika diskotik eta euskal musikaraino. Ordenadoreko programa batek neurtzen dizkit kanta bakoitzaren erritmoak eta horren arabera prestatzen dut klaserako diska egokia" esan digu irakasleak. Klasea progresiboa izaten da Santxoren hitzetan: "berotu, *kaña* sartu eta lasaitu".

"Erritmoa musikak jartzen du eta nik denetatik erabiltzen dut: disko musika, zeltiarra, euskal musika... segun eta zer erritmo behar dudan"

Edonorentzako modukoa

Spining-ean irakasleak jartzen du erritmoa, aurrean daukan taldearen arabera. Hala ere, norberak ikusten du erritmoa segi lezakeen edo ez eta pedalen gogortasuna aldatzeko aukera ere bada. Aitor Santxok esan digu edonorentzako moduko kirola dela, intentsitate gutxiago edo gehiagorekin. Bihotzeko arazoak dituen jendeak mediku azterketa bat egitea komenigarria dela dio hala ere, kirol oso intentsoa delako. Bestalde, gerritik behera muskulazio asko lantzen dela dio "baina lasai, ez dira izterrak loditzen-eta, indartu bakarrik". Kontuak kontu, zenbaitetik aitortu du agujeta ederrak pasa dituela. ||



"Dantzarik egin behar ez denez gizonezko asko animatzen dira"

Dantzarik egin behar ez den kirola da spining-a eta horrexegatik animatzen dira aerobic-era baino askoz gizonezko gehiago, Santxok aitortu digunez: "aerobic-ean gizonezko gutxi izaten da, baina, spining-ean asko. Hemanin erdi eta erdi ari gara momentu honetan, baina, toki askotan gizonezkoak izaten dira gehiago".

❖ BERTSOLARITZA

Ikasleen bertso saio bereziak gaur

Hernaniko lau ikastetxeetako ikasleek bertso saio berezia egingo dute gaur Biterin. Arratsaldeko 15:30etan ikasleei zuzendua izango da eta 18:30etan, gurasoei eta entzun nahi duen guztiari zuzendua. Hernanin, ikastetxeetan bertsolaritza klaseak ematen dira hezkuntza arautuan, bertsozale elkarteak, ikastetxeak eta Udalak lortutako akordioaren bidez. ||

◆ SASKIBALDIA

Hernani-Ordizia gaur kiroldegian

Hernaniko kadeteek Ordizaren kontra jokatu dute gaur, arratsaldeko 19:15etan, kiroldegian. Ligako azken aurreko partidua da. ||

❖ SAN JOANAK

Haurren aureskua

San Joanetako haurren aureskuan parte hartu nahi dutenek izen ematea zabalik dute Biterin. Gehienez 50 bikotek hartuko dute parte. Entsaioak maiatzaren 31ean hasiko dira Urumea ikastolan (Gay Murren), astelehen, astearte eta asteazkenetan, 18:30etan. Beharrezkoa da haurrek 5 urte beteta izatea. ||

Amegar
Etxe Tresnak

Altzariak

Txirrita Kalea 15 - Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03 - Izpizua 27

brintza
Brintza, S.L.

Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskalak
Aseguruak, Inbertsioak

Juan de Urbieta 15
Tel.: 943 331267
Faxa: 943 330892
20120 Hernani

DORRONSORO

OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsorok Okindegia, S.L.


Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

TELEFONAK: Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DYA: 943 464622
Autobusak: 943 556662 Anbulatorioa: 943 006666 Jokalari anonimoak: 943 331103
Alkoholiko anonimoak: 943 331103 FARMAZIAK Egunez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087
Gauzez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA GAUR Eguna lainoekin argituko da eta aurrera egin ahala, zerua garbitzen joango da. Hala ere goizean euria egin lezake. temperatura igo egingo da eta 18°C ingurukoa izango da.

BIHAR Ostegunean zerua nahiko garbi izango da egun osoan. Temperaturak gora egingo dute, nabarmen gainera eta 20°C pasako ditu maximoak

(euskalmet)



'Ttakun Ttan Ttakun' taldeko txalapartariak atzo prentsaurrean.

«Txalapartarien topagune bihurtu da festa eta lan askoren plaza bakarra»

Bihar hasiko da 19garren Txalaparta Festa eta datorren larunbata arte daude emanaldiak. Egun haundia larunbatean da.

BIHAR hasiko da 19garren Txalaparta Festa Hernanin eta aurten ere ekitaldiz gainezka dator. Bihar, *Euskal Herriko Bihozkada* izeneko erakusketa aurkeztuko dute, arratsaldeko 19:30etan Biterin eta bihar, ostiralean eta larunbatean egongo da irekita. Bertan, instrumentuen erakusketaz gain, txalapartaren inguruko kontuak biltzen dituen multimedia bat egongo da ikusgai, besteak beste.

Ostiralean, bi emanaldi

Ostiralean Zuhaitzaren Soina Kolektiboak emanaldi berezia egingo du 19:30etan, Biteri kultur etxean. Urretxuar talde honek lehen ere lan bereziak eginak ditu txalapartan oinarrituta eta oraingoan zenbait musikariren laguntza izango dute. Goizaldeko 24:00etan, berri, Txalaparta Party Apartaren 9garren emanaldia izango da Kixkal tabernan. Lara Mitxelena eta Iñigo Monrealek prentsaurrean azaldu zuten, disko

jartzaile eta txalapartariak elkarrekin egiten duten emanaldia da hau eta nahi duenak izaten du txalaparta jotzera tabladura igotzeko aukera.

Larunbata egun haundia

Larunbatean festa haundia izango da eta urteroko moduan 500en bat lagun espero dira Hernanin "horietatik 300en bat txalapartariak"

Juan Mari Beltranen hitzetan. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera txalaparta erromeria, sagardo banaketa eta alboka, dultzaina, trikitixa eta txistulariak ibiliko dira kalez kale. Ondoren, afora dago Tilo setan (izena eman nahi duenak deitu Musika Eskolara 943 55 74 09) eta ondorenean txalaparta taldeen kontzertuak izango dira. ||

Hernaniko Txalaparta Eskola: 20 urte bidea irekitzen

TXALAPARTA Festak 19garren edizioa du aurtengoa, eta Hernaniko Txalaparta eskolak 20 urte bete ditu. Beltranek atzo azaldu zuen nola Hernaniko musika kontserbatorioan herri musika tresnak sartzeko erabakia hartu zuen Udalak orain 20 urte eta horren ondorioz aitzindari izan dela, besteak beste txalapartan. Hernaniko Txalaparta Eskola erreferentzia da eta bide berri bat, materiala, errepertorioa eta txalapartari eta irakasle asko sortu ditu urte guzti hauetan. Gainera, Txalaparta Festaren ondorioz, txalapartarien topagune ere bada Hernani eta herri desberdinetako taldeek egiten dituzten lanak emateko plaza bakarra edo ia bakarra ere bihurtu da Hernani. ||

BH: «Gaizki hasi zen igerileku irekien egitasmoa eta bide beretik doa»

Latsunbe-Antziola biala eta bonobusaren inguruko iritzia ere eman du BHK.

BILDU Hernani plataformak bere iritzia eman du zenbait Udal proiekturen gainean, Kronikara bidalitako prentsa ohar batean. Igerileku irekien gainean dio proiektua egin eta lanak adjudikatzeko lehiaketa publikoa desertu gelditu dela "eta egitasmo honen gainean genituen zalantzak areagotu egin dira". BHK dio bi proiektu aurkeztu direla lehiaketara "baina egitasmo horien kosta aurrikusitakoa baino askoz garestiagoa zen". Honen bueltan galdeztzen du ea Udalak zer egin behar duen

kapazitate itzela".

Latsunbe-Antziola

Latsunbe-Antziola errepi-dearen gaian Arratibel zinegotziari "harrokeria gutxiago" izateko eskatu dio BHK. Kronikara bidalitako oharra dioenez "Arratibelek nahigo du Latsunbe-Antziolako trafikoa arazoak mantendu, egindako akatsak onartu baino. Aurrerantzean ere atasko eta pilaketak jarraituko dute"

Bildu Hernanik igerilekuen gaineko eztabaida zabaltzea eskatzen du

gaineratu dute.

Horrez gain, dio gehiegi dela esatea "Hernaniko historio lehenengo aldia dela herritarren eskarera bat kontutan hartzen dela". Gai honen bueltan gaineratu dute "nor-bait bazterketa eta inposizio aldetik gobernatzen ari bada, horiek Arratibel eta bere lagunak dira, beraien agintea BHri botoa eman zieten 3.600 hernaniarren bazterketan oinarritzen baita".

era bat kontutan hartzen dela". Gai honen bueltan gaineratu dute "nor-bait bazterketa eta inposizio aldetik gobernatzen ari bada, horiek Arratibel eta bere lagunak dira, beraien agintea BHri botoa eman zieten 3.600 hernaniarren bazterketan oinarritzen baita".

Bonobusa

Bonobusaren gaian "Amonarraiz jaunaren sentsibilitateak" poztan dituela esan du BHK eta eskatu dio "sentsibilitate hori ekintzetan gauzatzea". Beren lankidetzaz izango duela esan dute. ||



Maria Jesus Hernandez eta Jose Antonio Ameztoy

-50 urte elkarrekin-

Zorionak seme-alaba, biloba eta familiaren partetik

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko ileapaindegi batean laguntzaile behar dugu, asteburuetan lan egiteko. Deitu 943 33 24 41

Karabana bat salgai, sukalde eta abantzearekin, Mendigorriko kanpinean. 3.600,00€. Deitu: 618 11 97 81

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Neska euskaldun bat behar dugu Hernanin 5 urteko haur bat arratsaldetan zaintzeko. Deitu: 943 33 02 54

◆ MUSA

Bihar hasiko da Xalaparta elkarteko mus txapelketa eta partidak ostegunetan izango dira

Xalaparta elkartean bihar hasiko da mus txapelketa 16 bikoterekin. Partidak ostegunero izango dira eta Hernaniko Kronikak egunean bertan aterako ditu jokatu diren partidak. Bestalde, gaur partidak daude Aralar tabernan: Ceci-Bitxo/Lunaro-Ekaintz, Julio-Mantxa/Ketus-Pako, Joxe Ramon-Pako/Manolo-Txanka, eta Txirili-Egaña/Gorka-Iñaki. ||